NATURA

Energia



INDARRA ETA HAIEN EFEKTUAK				
INDARRA	**MUGIMENDUA ETA INDARRAK**		**DEFORMAZIOAK ETA INDARRAK**	
Gorputz baten forma edo mugimendu egoera aldatzeko gai den guztia da indarra. Indarrek gorputzetan sortzen dituzten efektuak ez dira beti berdinak izaten, zenbait faktoreren araberakoak baitira: intentsitatea, iraupena eta indarra jasotzen duen gorputzaren ezaugarriak	**MUGIARAZI**	**NORABIDEA ETA NORANZKOA**	**ELASTIKOAK**	**PLASTIKOAK**
	Geldirik dagoen gorputz bati indarren bat aplikatzen badiogu, mugiarazi egin dezakegu.	Mugitzen ari den gorputz bati indar bat aplikatzean, mugimenduaren norabidea eta noranzkoa alda ditzakegu.	Gorputz elastikoek hasierako forma berreskuratzen dute deformazioa eragiten duen indarra gelditzean.	Gorputz plastikoak formaz aldatzen dira, eta ez dute hasierako forma berreskuratzen deformazioa eragiten duen indarra gelditzean.
			ZURRUNA	
			Gorputzak zurrunak dira, haien gainean nahikoa indar eragitean hausten edo zatitzen badira, deformatu beharrean.	

FLOTAGARRITASUNA		
Flotagarritasuna gorputz batek likido edo gas batean flotatzeko duen ahalmena da. Ezaugarri horretan, bi faktore eragiten dute:		
HARRIA	**LAUKIA**	**KORTXOA**
Gorputzaren pisua bultzada baino handiagoa bada, hondoratu egingo da. 	Pisua likidoaren bultzadaren berdina bada, gorputza hondoratu egingo da, baina ez hondoraino. 	Pisua likidoaren bultzada baino txikiagoa bada, flotatu egingo du. 

ENERGIA	
ENERGIA	**ENERGIA ETA KUTSADURA**
Gure inguruan gertatzen diren aldaketa guztiak energiari esker gertatzen dira. Kasu gehienetan, ezin dugu energia ikusi, baina bai zer efektu dituen gorputzei eragiten dietenean.	Energia lortzeak eta energia hori erabiltzeak, atmosfera, ura eta lurzorua kutsatzen ditu. - **Atmosferaren kutsadura** erregaiak energia lortzeko erretzean gertatzen da. Atmosferara isuritako gasak lurrazalera itzultzen dira, ura eta lurzorura kutsatzen dituzte, eta landaredia suntsitzen dute. Horrez gain, gas horietako batzuek Eguzkiaren beroa atxikitzen dute eta horrek atmosferako tenperaturak gora egitea eragiten du. - **Uraren eta lurzoruaren kutsadura** hondakinen isurketaren eta metaketaren ondorioz gertatzen da. Hondakin horiek metatzen diren ingurunea luzerako geratzen da kutsatuta eta erabilezin bihurtzen da.

ENERGIA MOTAK		
Energia mekaniko gorputzen posizioaren eta mugimenduen ondorioz eragindakoa da. Adibidez, ura urtegi batean jaustean.	Argi energia zenbait gorputz naturalek (hala nola Eguzkiak) eta artifizialek (esaterako, bonbillek) igortzen dutena da.	Soinu energia sortzen da gorputz batek bibratzean eta inguruan duen ingurunea (airea, esaterako) bibraraztean.
Energia elektrikoa ur jauzietatik, Eguzkitik edo airearen mugimendutik lortzen da. Etxeetan erabiltzen da.	Bero energia gorputzek (Eguzkiak, suak, adibidez) bero gisa ematen duten energia da.	Energia kimikoa substantzia batzuetan pilatzen da. Esaterako, petrolioa erretzean edo oxidatzean, energia askatzen da.

ENERGIA ITURRIAK

Energia iturriak energia lortzeko aukera ematen duten natura baliabideak dira. Energia iturriak berriztagarriak edo berriztaezinak izan daiteke.

Energia iturriak berriztagarriak		Energia iturri berriztaezinak	
	Haize energia		Petrolioa
Ez dira agortzen, berritze erritmoa bizkorragoa delako kontsumoa baino. Gutxien erabiltzen direnak dira.		Oso azkar kontsumitzen dira, baino oso poliki berritzen. Horrenbestez, agortu egiten dira. Gehien erabiltzen direnak dira.	
Eguzki energia	Energia hidraulikoa	Gas naturala	Substantzia erradioaktiboak

Energiaren lana

Gaia irakurri eta ulertu ondoren, natur zientzietako azken lanarekin hasiko gara. Energia-iturri mota bat aukeratu eta hari buruzko informazioa bilatuko dugu.

Hemen dituzu zure ikerketarekin lagun diezazkizuketen galdera batzuk, baina bilatu ahal duzun informazio guztia, jarraian dituzun galderei erantzuteaz gain.

- Zer energia mota da?
- Nola funtzionatzen du?
- Non aurki dezakegu?
- Zertarako erabiltzen da?
- Noiz hasi zen erabiltzen?
- Non erabili zen lehen aldiz?
- Zeintzuk dira abantailak? eta desabantailak?

Konta iezaguzu aukeratu duzun energia-iturriari buruz ikertzen duzun guztia!

Gogoratu ikastaro honetan egingo dugun azken lana dela.

Animo!